

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Aintzane Ezenarro Egurbide**, Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, **“Biktimen errekonozimendurako erakundeek egindako omenaldiaren inguruan”**, osoko bilkuran erantzuteko.

### **ZIOA**

ETAren biktimei 2007an egin zitzairen lehenengo oroimen ekitaldia, Eusko Jaurlaritzak antolatuta, eta barkamena eskatu zitzairen erakundeen izenean ordura arte behar bezala kontuan hartuak ez zirelako izan. Bigarren ekitaldian, 2008an, errekonozimendu hori terrorismoaren biktimei guztiei zabaldu zitzairen, baina barkamenik eskatu gabe. Ondoren errekonozimendu hori azpimarratu egin zen Eusko Legebiltzarrak ekainaren 19an, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa Legea onartu zenean, baina oraindik ere erakundeen izenean ez zaie maila bereko barkamen eskaerarik egin ahaztuak izan direlako ETakoak ez diren beste biktimei. Hirugarren eta azken ekitaldia ildo beretik joan zen eta oraindik ere biktime hauekiko egiteko dagoen adierazle garbia izan ziren Leonor Relaño *“Terrorismoaren biktimak omendu eta goresteko hirugarren ekitaldia’n egindako adierazpenak: “Las personas que yo conocí, afectadas por la actuación de grupos terroristas diferentes a ETA, están pasando, hoy, por una situación similar a la que vivimos las víctimas de ETA hace años. La indiferencia de la sociedad, el abandono de las instituciones, y la falta de reconocimiento a su sufrimiento”.*

Hori dela eta, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

### **INTERPELAZIOA**

Azal dezala ze egiteko asmoa duen bere gobernuak ETArenak ez diren biktimei barkamena eskatu eta merezi duten errekonozimendu instituzionala izan dezaten.

**Gasteizen, 2009ko abenduaren 1ean**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**